

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMASKO UDALA

Larrialdietarako etxebizitzaren araudiaren aldaketaren behin betiko onarpena.

Udal Batzarrak, 2016ko maiatzaren 4an egindako osoko bilkuran, Larrialdietarako Etxebizitzaren Araudiaren aldaketari hasierako onespena ematea erabaki zuen bertaratutako batzarkide guztien adostasunaz.

Kontuan izanik jendaurrean egon den epean ez dela erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu, araudiaren aldaketa hau behin betikotzat onartua geratzen da. Beraz, eta apirilaren 2ko Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/1985 legearen 70.2 artikulua xedatzen duena betez, aipaturiko araudia argitaratzen da.

Soraluze-Placencia de las Armas, 2017ko otsailaren 9a.—
Iker Aldazabal Basauri, alkatea. (987)

LARRIALDIETARAKO ETXEBIZITZAREN ARAUDIA

1. Etxebizitzaren helburua:

Udal jabetzako larrialdietarako etxebizitzaren helburua, hainbat arrazoiengatik etxebizitzarik gabe gelditu diren pertsonen lehenbailehen babesa ematea da.

Pertsona horiei denboraldi eta leku bat erraztu nahi zaie, baikoitzaren eta/edo familiaren egoerari buruzko hausnarketa lasai bat egin ahal izateko.

Beharrezkoa den autonomia pertsonala bultzatu nahi da horrela, laguntzeko errekurtsuen bidez bizi duten egoera horri era egokian aurre egin ahal izateko.

Etxebizitza honetaz balia daitezke, egoera hau bizi duten pertsonak:

— Ezbehar baten ondorioz (sutea, uholdeak...) etxebizitzarik gabe gelditu diren eta baliabiderik ez duten familiak edo pertsonak (aseguru bat ez dutenak, beste etxebizitzarik ez dutenak, errenta bat ordaintzeko dirurik ez dutenak...), egoera horri aurre egiteko.

— Familia-harreman jasanezinak, tratu txar fisiko eta/edo psikikoak izateagatik.

— Larrialdi egoerak, desjabetzeen, hipoteka-exekuzioen edo exekutatutako edo exekutatze-fasean dauden expropiazio espedienteen ondoriozkoak.

— Ohiko etxebizitza aurri egoeran edo bertan bizitzeko moduan ez edukitzea.

— Beste egitate berezi batzuk.

Edozein kasutan, aipatutako arrazoietatik edozein emanda ere, familia edo bizikidetzaren unitatearen, etxebizitza premiari berehala erantzun ahal izateko baliabide ekonomiko ezari lotuta joan behar du.

Soraluzeko Udalak, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren bidez, dauden errekurtsuen inguruko aholkuak eta informa-

AYUNTAMIENTO DE SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS

Aprobación definitiva de la modificación del reglamento del piso de emergencia.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 4 de mayo de 2016, acordó por unanimidad de los corporativos asistentes aprobar inicialmente la modificación del Reglamento del piso de emergencia.

Teniendo en cuenta que en el periodo de exposición pública no se presentaron reclamaciones ni alegaciones, la modificación del reglamento ha quedado aprobada definitivamente, por lo que en cumplimiento de lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación íntegra del citado reglamento.

Soraluze-Placencia de las Armas, a 9 de febrero de 2017.—
El alcalde, Iker Aldazabal Basauri. (987)

REGLAMENTO DEL PISO DE EMERGENCIA

1. Objetivo del piso:

El piso de emergencia de titularidad municipal tiene por objeto acoger a aquellas personas que por diversas causas han quedado sin vivienda y necesitan de una ayuda inmediata.

Se trata de posibilitar a las mismas de un tiempo y un espacio en el que reflexionar con calma sobre su situación personal y/o familiar.

Se trata de promover la autonomía personal necesaria, a través de los recursos de apoyo necesarios para poder hacer frente, de forma adecuada, a las situaciones que están viviendo.

Podrían hacer uso de esta vivienda las personas que se encuentran en las siguientes situaciones:

— Familias u personas que debido a un siniestro (incendio, inundación...) han quedado sin vivienda y carezcan de medios (disponibilidad de un seguro, una segunda vivienda, medios económicos para hacerse cargo de un arrendamiento...) para hacer frente a esta situación.

— Relaciones familiares insostenibles por la existencia de malos tratos físicos y/o psíquicos.

— Situaciones urgentes debidas a desahucios, ejecuciones hipotecarias o expedientes expropiatorios ejecutados o en fase de ejecución.

— Encontrarse la vivienda habitual en estado de ruina o inhabitable.

— Otros supuestos especiales.

En todo caso, la concurrencia de cualquiera de estos motivos ha de ir unida a la efectiva falta de recursos económicos con los que la unidad familiar o convivencial pudiera paliar de forma inmediata su necesidad de vivienda.

El Ayuntamiento de Soraluze a través del Departamento de Servicios Sociales llevará a cabo tareas de asesoramiento e

zioa emango ditu eta nola heldu horietara, premia egoeratik atera ahal izateko.

2. Sarrerako eskakizunak:

Soraluzen sei hilabetez errolatuta egotea, baliabide honen eskaera egiterakoan.

3. Etxebizitzaren mantenimendua:

Etxebizitzaren mantenimendu gastuei Gizarte Zerbitzuetako Departamentuaren aurrekontuetatik erantzungo zaie.

Etxebizitzaren mantentze-lanetarako izendatzen diren diruak, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak administratuko ditu.

Baliabidearen erabiltzaileek, diru sarrerak izanez gero, etxebizitzaren mantenuan parte hartuko dute, diru sarrera horien %25a emanez, beti ere, aipatutako diru sarrerak bizikidetzaren unitate mota bakoitzarentzat ezarritako Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren gehieneko zenbatekoak baino handiagoak badira.

4. Prozedurak:

Sarrera eskaerak Soraluzeko Gizarte Zerbitzuetan jasoko dira, eta gizarte zerbitzuetako teknikariek bidezko txostena egin ondoren, egoera Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigrazioaren Batzordearen ezagutzara jarriko da, han baloratu eta irizpena eman dezaten. Pertsonak, familiak edo bizikidetzaren unitateak berehala erabilerara egiteko premia egoerarik emanez gero, eta dagokion batzordea egiteko denborarik ez balego, gizarte txostena batzordea osatzen duten kide guztiei emango litzaieke, haien ezagutzarako eta baloraziorako.

Kasu bakoitzari dagokion gizarte txostena ikusita, beharrezko berehalakotasunaz eta, beti ere, eskaera egiten denetik 15 eguneko gehieneko epean, etxebizitza aldi batean erabiltzeko eskaera ebatziko da, alkatetzaren dekretu bidez.

Onartzen diren pertsonak, familiak edo bizikidetzaren unitateak, etxebizitza horretara joaten direnean, gehienez hiru hilabete epeko erabiltzeko etxebizitza zuzeneko hitzarmena sinatu beharko dute, bertan dauden bitartean larrialdietako etxebizitzaren funtzionamendu arauak onartzuz. Jarritako arauak betetzen ez badira, etxebizitza horretatik bota egin daitezke, Udalak idatziz adierazten dietatik 48 orduen barruan. Baita, aipatu etxebizitzaren erabiltzaile izatera behartu duen egoerari irtenbide bat aurkitzeko konpromisoa hartu beharko du.

5. Egonaldia:

Baliabidea erabiltzeko baimenarekin batera, egonaldi epea zehaztu beharko da, ezingo delarik, inolaz ere, hiru hilabete baino gehiagokoa izan. Epe hau igarota premia egoerak bere horretan jarraituko balu, eta interesdunek hala eskatuz gero, kontratua alkatetzaren dekretu bidez luzatu ahal izango da, premia egoera mantentzearen arrazoiak etxebizitzako erabiltzaileei egotz dakiekeen kasuetan izan ezik eta, beti ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zerbitzu teknikoaren txostena dela medio. Erabakitako luzapena, batzordeko kideei ezagutaraziko zaie ahalik eta epe laburrenean.

Edozein modutan, etxebizitza horretan gehienez ere sei hilabetez egon ahal izango da, egonaldiaren luzapena barne. Etxebizitzan egoteko epea luzatzea onartuko ez balitz, astebetere buruan utzi beharko da etxea.

Bertan daudenean, larrialdietarako etxebizitza noiz nahi utzi dezakete.

Baliabidearen erabiltzaileek etxebizitza horretatik kanpo lo egin behar badute, Gizarte Laguntzaileari jakinarazi beharko diote, behar besteko denborarekin.

información de los recursos existentes y la forma de acceso a los mismos con el fin de poder salir de su situación de necesidad.

2. Requisitos de acceso:

Llevar seis meses empadronado en el municipio de Soraluze a la fecha de solicitud de este recurso.

3. Mantenimiento del piso:

Los gastos de mantenimiento de la vivienda correrán a cargo de los presupuestos del Departamento de Servicios Sociales.

Los fondos destinados al mantenimiento del recurso serán administrados por el Departamento de Servicios Sociales.

Los/as ocupantes del recurso que tengan ingresos económicos deberán contribuir al mantenimiento de la vivienda con el 25% de los mismos, siempre que dichos ingresos sean superiores a las cuantías máximas de la Renta de Garantía de Ingresos establecidas para cada tipología de unidad convivencial.

4. Procedimiento:

Las demandas de ingreso se recogerán en los Servicios Sociales de Soraluze y, tras la realización de un informe social por parte de los técnicos de Servicios Sociales, la situación se pondrá en conocimiento de la Comisión de Sanidad, Bienestar Social e Inmigración para la valoración y dictamen. En aquellas situaciones en las que se precise el ingreso urgente e inmediato de las personas, familias o unidades convivenciales en el recurso, y no diera tiempo a celebrarse la correspondiente Comisión, el informe social se haría llegar a todos los miembros de la misma para su conocimiento y valoración.

Visto el informe social que proceda en cada caso, con la inmediatez que sea necesaria y en un plazo nunca superior a 15 días desde la entrada de la solicitud, se resolverá sobre la solicitud de ingreso temporal en la vivienda mediante resolución de alcaldía.

Las personas, familias y unidades convivenciales que pasen a ser beneficiarias del recurso, firmarán un contrato de cesión de vivienda por un período máximo de tres meses, comprometiéndose a cumplir el Reglamento que rige el funcionamiento del Piso de Emergencia durante su estancia en el mismo. El incumplimiento de dichas normas puede ser motivo de expulsión del recurso en un plazo de 48 horas previa comunicación, por escrito, del Ayuntamiento. Asimismo acepta el compromiso de buscar una solución más estable a la situación que le ha llevado a ser beneficiario de este recurso.

5. Tiempo de estancia:

El acuerdo que autorice la entrada al recurso determinará el plazo de estancia, que en todo caso, no será mayor de tres meses. No obstante, si transcurrido dicho período continuase la situación de necesidad, siempre que no sea por causa imputable a los ocupantes del recurso y previo informe de los técnicos de Servicios Sociales del Ayuntamiento, se podrá prorrogar el contrato por decreto de Alcaldía, si así lo solicitasen las personas interesadas. Dicha prórroga será puesta en conocimiento de las personas miembros de la Comisión en el menor plazo de tiempo posible.

En todo caso, el tiempo de estancia máximo en el recurso, incluyendo el plazo de prórroga, será de seis meses. En el caso de que el acuerdo de prórroga fuera denegatorio debería abandonarse el recurso en el plazo de una semana.

La salida del recurso es totalmente libre para las personas usuarias del mismo.

En caso de que las personas usuarias del recurso tengan que pernoctar fuera del mismo, deberán comunicarlo con antelación suficiente a la Trabajadora Social.

6. Baliabidearen erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak:

Eskubideak.

Baliabidearen erabiltzaileek ondorengo eskubideak izango dituzte:

- a) Baliabidea erabiltzeko eskubidea, Araudi honetan egonaldia amaitutzat emateko aurreikusten den arrazoiren bat jazotzen ez den bitartean.
- b) Pentsamendu-, iritzi-, ideologi- zein erlijio-askatasuna errespetatzeko eskubidea.
- c) Pertsona eta familia intimitatea errespetatzeko eskubidea.
- d) Izaera pertsonaleko datuen babesarekiko konfidentialtasun eta errespetu eskubidea.
- e) Bere egoerarentzat egokiak diren zerbitzu edo prestazioei buruzko informazioa eta orientazioa jasotzeko eskubidea.
- f) Instituzio edo erakunde arduradunaren aurrean bere iritzia adierazteko eta baliabidearen funtzionamendua hobetzeko iradokizunak edota kexak aurkezteko eskubidea.
- g) Baliabidearen arduraduna den instituzio edo erakundearen aldetik, egindako iradokizun eta kexen gaineko erantzuna jasotzeko eskubidea.

Betebeharrak.

Baliabidearen erabiltzaileek ondorengo eginbehar eta betebeharrak izango dituzte:

- a) Udaleko Gizarte Zerbitzuek eskatutako dokumentazioa entregatzea, dagokion epean.
- b) Baliabidearen erabiltzaileek haren ordena eta garbitasunaren ardura izango dute. Salbuespen kasuetan, Osasun, Gizarte Ongizate eta Inmigrazioaren Batzordeak aurrez baloratu, eta betebehar hura betetzeko erabiltzailearen ezintasuna egiaztatuz gero, lan hori Udalaren etxeko laguntza zerbitzuak egingo du.
- c) Baliabidearen ekipamendu eta tresnak behar den moduan erabiltzea eta altzariak eta etxerako tresnak ez sartzea baimenik gabe. Erabiltzaileek erabilera ona egingo dute eta behar ez den eran edo arduragabekeriaren ondorioz kalteak gertatuz gero, haiek konpontzeko edo berrezartzeko gastuak beren gain hartuko dituzte.
- d) Ezingo da obrarik egin erabiltzaileen ekimenez. Instalakuntzetan matxurarik balego, Udaleko Gizarte Zerbitzuei berri emango zaie lehenbailehen.
- e) Udalaren baimena ez duten pertsonak ezin izango dute baliabidea erabili, baimendutako erabiltzailearekin ahaidetasun edo bestelako harremanik izanda ere.
- f) Ezingo da etxebizitzaren giltzen kopiarik egin edota beste pertsona bati utzi. Baliabidean egonaldia amaitzen denean, giltzak Gizarte Zerbitzuetako sailean utziko dira egun berean.
- g) Udalak inolaz ere ez du bere gain hartuko baliabidearen erabiltzaileei gerta dakiekeen diru edo objektuen galeraren gaineko erantzukizunik.

7. Etxebizitza bizikidetzaren unitate ezberdineko kideek erabiltzea:

Baliabidea bizikidetzaren unitate ezberdineko kideek aldi berean erabili ahal izatea aurreikusten da, beharizan egoera antzekoak badituzte eta, beti ere, gizarte zerbitzuetako teknikariek egokia ikusten badute.

Egoera hauetan:

– Garbiketa, higiene, ordutegi, etab.-i dagozkien bitzita kolektiboaren arauak bete beharko dira. Guztion erabilerako

6. Derechos y obligaciones de las personas acogidas:

Derechos.

Las personas acogidas en el recurso disfrutarán de los siguientes derechos:

- a) Derecho a permanecer en el recurso mientras no concurra alguna de las causas de finalización de la estancia señaladas en este Reglamento.
- b) Derecho a ser respetadas en el ejercicio de su libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión.
- c) Derecho al respeto de su intimidad personal y familiar.
- d) Derecho a la confidencialidad y respeto a la protección de los datos de carácter personal.
- e) Derecho a recibir información y orientación de los servicios o prestaciones adecuadas a su situación.
- f) Derecho a expresar su opinión y presentar sugerencias para mejorar el funcionamiento del recurso así como a presentar quejas ante la institución o la entidad responsable.
- g) Derecho a obtener respuesta por parte de la institución o la entidad responsable del recurso sobre las sugerencias y quejas planteadas.

Obligaciones.

Las personas acogidas en el recurso tendrán los siguientes deberes y obligaciones:

- a) Aportar la documentación requerida por parte de los Servicios Sociales del Ayuntamiento en el plazo debido.
- b) Será responsabilidad de las personas usuarias del recurso en orden y limpieza del mismo. En supuestos excepcionales, valorados previamente por la Comisión de Salud, Bienestar Social e Inmigración, en los que resulte acreditada la imposibilidad de la persona usuaria de cumplir con este deber se cubrirá esta tarea a través del Servicio de Ayuda a Domicilio municipal.
- c) Utilizar debidamente el equipamiento y utensilios del recurso y no introducir sin autorización previa mobiliario o enseres domésticos. Las personas usuarias del recurso deberán hacer buen uso del mismo y, en el caso de producirse desperfectos por utilización indebida o negligencia, quedarán obligadas a asumir los gastos de su reparación o reposición.
- d) No se podrán realizar a iniciativa de las personas usuarias del recurso obra alguna. En caso de avería en las instalaciones deberá dar cuenta inmediata a los Servicios Sociales del Ayuntamiento.
- e) No permitir el uso del recurso a personas no autorizadas por el Ayuntamiento de Soraluze, independientemente del tipo de parentesco o relación que tenga con la persona usuaria.
- f) No está permitido hacer copias de las llaves de la vivienda o prestarlas a otra persona. Al finalizar la estancia en el recurso se deberán entregar las llaves en el Departamento de Servicios Sociales en el mismo día que se abandone el mismo.
- g) El Ayuntamiento en ningún caso se responsabilizará de las posibles pérdidas de dinero u objetos de valor de las personas usuarias del recurso.

7. Vivienda compartida por personas de varias unidades convivenciales:

Se contempla la posibilidad de que el recurso sea compartido por personas de varias unidades convivenciales que se encuentren en similares situaciones de necesidad, siempre y cuando los técnicos de Servicios Sociales lo consideren viable.

En estas situaciones:

– Se deberán cumplir las normas de vida colectiva en cuanto a limpieza, higiene, horarios, etc. Respecto a los trabajos

elementuen garbiketa eta etxeko lanei dagokienean (korridorea, atondoak, sukaldea, komuna), bizilagunek erabakiak hartu beharko dituzte eta haiek bete. Pertsona bakoitza bere seme-alabekin arduratuko da eta umeak ez dira, inolaz ere, bakarrik geratuko etxebizitzan, ez egunez eta ez gauzez ere.

– Erabiltzaileen arteko liskar edo ezadostasunen kasuan, baliabidearen arduradun den instituzio edo erakundeak behar diren neurriak hartuko ditu, erabiltzaileek nahitaez betebeharrekoak.

– Baliabidea konpartitzen duten pertsonen pentsamendu-, iritzi-, ideologia- eta erlijio-askatasuna errespetatu beharko da.

8. Erabilera eskubidea ezeztatzea eta iraungitzea:

Larrialdietarako etxebizitzaren erabilera eskubidea ondorengo kasuetan ezeztatuko da, aurrez interesdunei entzunda:

- a) Baliabidea esleitzeko aintzat hartutako datuen ezkuta-keta edo faltsutasuna egitea.
- b) Baliabidea erabiltzeko eskatutako betekizun batzuk gal-tzea.
- c) Udal zerbitzuek eskatutako dokumentazioa ez aurkeztea.
- d) Beste erabiltzaileei eraso fisiko edo psikologikoak egitea.
- e) Bost egun baino gehiagoz larrialdietarako etxebizitzatik kanpo izatea, ospitaleratze edo ezinbesteko kasuren batengatik ez bada.
- f) Araudi honetan aurreikusitako baliabidearen erabiltzaileei dagozkien gainontzeko betebeharrak ez betetzea.

Zerbitzua ondorengo arrazoiengatik iraungiko da:

- a) Harrerarako aurreikusitako denbora bukatutakoan.
- b) Erabiltzaileek uko egiten badiote.
- c) Heriotza kasuetan.

9. Kaleratze administratiboa:

Araudi honetan jasotako arrazoiren batengatik edota egonaldi-rako emaniko epea amaitu delako, larrialdietarako etxebizitza utzi behar duten pertsonak aldetzeari uko egiten badiote, behartuak izango dira botatze administratiboaren bidez. Kalera-tzea erabakitzeko eskumenak eta prozedurak izaera adminis-tratiboa eta sumarioa izango dute.

10. Xedapen gehigarria:

Araudi honek jasotzen ez dituenetan, Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak, kasua aztertu ostean, Osasun, Gizarte Ongi-zate eta Inmigrazioaren Batzordeari emango dio haren berri eta Tokiko Gobernu-Batzarrak, eskumena duen organoa izanik, har-tuko du erabakia.

11. Azken xedapena:

Araudi hau indarrean sartuko da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIA-LEAN argitaratzen den hurrengo egunean.

domésticos relacionados con los elementos de uso común (pasillo, vestíbulo, cocina, baño), las personas residentes deberán adoptar acuerdos y cumplirlos. Cada persona deberá responsabilizarse de sus hijos e hijas y bajo ningún concepto los niño/as se quedarán solos en el piso ni de día ni de noche.

– En el caso de conflictos o desacuerdos entre las personas usuarias, la institución o la entidad responsable del recurso tomará las medidas oportunas y, las personas usuarias deberán cumplir dichas decisiones.

– Se deberá respetar la libertad de pensamiento, opinión, ideología y religión de las personas con las que se comparte el recurso.

8. Revocación y extinción del acogimiento:

Serán supuestos de revocación del derecho de uso del piso de emergencia, previa audiencia de las personas interesadas, los siguientes:

- a) Ocultamiento o falsedad en los datos que hayan sido tenidos en cuenta para la adjudicación del recurso.
- b) Pérdida de algunos requisitos exigidos para acceder al recurso.
- c) No aportar la documentación que pudiera ser requerida por los servicios municipales.
- d) Por agresión física o psicológica a otras personas usuarias.
- e) Por la ausencia del piso de emergencia por periodo superior a 5 días y sin que se justifique un ingreso hospitalario u otras razones de fuerza mayor.
- f) Por incumplimiento de las demás obligaciones de las personas usuarias previstas en este reglamento.

El servicio se extinguirá por los siguientes motivos:

- a) Finalización del tiempo previsto para la acogida.
- b) Renuncia de las personas usuarias.
- c) Fallecimiento.

9. Desahucio administrativo:

En caso de que por alguno de los motivos contemplados en este reglamento o por finalización del plazo concedido la persona o personas que deban abandonar el piso de emergencia se negaran a hacerlo, podrán ser obligadas mediante desahucio administrativo. La competencia y el procedimiento para disponer el desahucio tendrán carácter administrativo y sumario.

10. Disposición adicional:

Cualquier aspecto que no se vea recogido en este Reglamento, el Departamento de Servicios Sociales, una vez estudiado el caso, lo pondrá en conocimiento de la Comisión de Sanidad, Bienestar Social e Inmigración y la Junta de Gobierno Local será el órgano competente para dar respuesta a dicha situación.

11. Disposición final:

El presente Reglamento entrará en vigor a partir del día siguiente de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.